



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ORDAINKETAK GERORATZEA ETA KREDITU KOBRAEZINAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantzaren xedea arautzeko ahalmena gauzatzea da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak zehaztu edo garatu behar dituen gaietarako buruzko araudiaren bitartez.

2. artikulua. Lege-araubidea.

Zerga-kredituen eta zuzenbide publikokoak diren gainerako toki-sarreraren bilketa kudeatzeko orduan, honako arau hauek xedatutakoa bete beharko da:

- 1.- Azkoitiko Udalaren Zergabilketari buruzko Ordenantza hau.
- 2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua.
- 3.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua.

II. DIRUBILKETAREN KUDEAKETA

1. ORDAINKETA GERORATZEA EDO ZATIKATZEA

3. artikulua. Ordainketa geroratzeko edo zatikatze eskara.

1.- Honako hauek dira ordainketa geroratzeko edo zatikatze onartzeko irizpide orokorrak:

-Zerga-zorren, zehapenen edo zuzenbide publikoko beste edozein sarreraren subjektu pasiboek eskatu ahal izango dute ordainketa geroratzeko edo zatikatze, horren ordainketari arauzko epearen barruan aurre egiterik ez daukatenean.

-Geroratu edo zatikatuko den zorraren zenbatekoa ordaintzeke dagoen zorroaren adinakoa izango da, eskatzaileak izan dezakeen aurreko zorra ere barne.

-Ordainketa bat zatikatzea eskatzen denean eta zatikatu beharreko zorra betearazteko aldiaren barruan dagoenean, ezartzen zaion gaitz % 20koa izango da, une horretan dagokion gaitz zein den alde batera utzita.

-Geroratzeko edo zatikatze gehienezko epea 12 hilabetekoa izango da.

-Zorrek ez dira geroratu edo zatikatuko zenbatekoa 150 eurotik beherakoa denean, agiriaren bidez ordainketari aurre egiteko ezintasuna arrazoitzen den salbuespenezko egoeretan izan ezik.

- Zorrek geroratu nahiz zatikatzen direnean, horren ondorio diren likidazioak 50 eurokoak edo hortik gorakoak izan beharko dira.

- Geroratu edo zatikatzen den ordainketaren zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa denean, ordainketa bermatu beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen 2/2005 Foru Arauaren 79. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Bermea



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

aurkezteko beharretik salbuetsita egongo dira 3.000 eurotik beherako zenbatekoa duten subjektu pasiboak.

- Geroratzen edo zatikatzen den ordainketaren kopurua 3.000 eurotik gorakoa denean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen 2/2005 Foru Arauaren 26. artikuluan aipatzen diren berandutza-interesak ordaindu beharko dira.

-Eskatzailearen eta familia-unitatearen errentaren atalaseak ez du gainditu behar 42.009,32 euroko muga.

Epea eta zenbatekoa:

a/ 150 eta 300 euro bitarteko zorren ordainketa 3 hilabete arte geroratu edo zatikatu ahal izango da.

b/ 300 eta 600 euro bitarteko zorren ordainketa sei hilabete arte geroratu edo zatikatu ahal izango da.

c/ 600 eurotik gorakoak eta 3.000 eurotik beherakoak diren zorren ordainketa urtebete arte geroratu edo zatikatu ahal izango da.

2.- Eskaeren edukia.

Geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak nahitaezkoak diren datu hauek izango ditu:

- a) Eskaera egiten duenaren izen-abizenak edo sozietate-izena, identifikazio fiskaleko kodea eta zerga-egoitza.
- b) Geroratzea edo zatikatzea eskatzen den zorraren identifikazioa.
- c) Ezarritako epeen barruan ordainketa egitea behin-behinean galarazten dion egoera ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen duten arrazoiak.

Premia ekonomikoa frogatzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

-pertsona fisikoak:

c.1) edozein kontzepturen izenean hilerio jasotzen diren diru-sarrera guztien frogagiriak (soldata, pentsio, laguntza, eta gainerakoenak) eskaera aurkeztu den egunaren aurreko hilari buruzkoak.

c.2) Langabeziako subsidioak direnean, prestazioaren zenbatekoaren ziurtapena aurkeztu beharko da, eta horrekin batera prestazioa emateko ebazpenaren kopia eta beste dokumentu bat prestazio hori zenbat denborarako onartu zaion egiaztatzeko.

c.3) Ordaintzera behartuta dagoena langabezian badago eta ez badu inolako subsidio edo laguntzarik jasotzen, langabezia-egoera justifikatzeko frogagiria aurkeztu beharko du, eta, halaber, organo eskudunak egindako ziurtapen bat subsidio edo laguntza moduan ez duela ezer kobratzen adieraziko duena.

Era berean, eskatzailearen uzia sostengatzeko egokitzat jotzen diren dokumentu guztiak aurkeztu ahal izango dira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

c.4) Egoera ekonomiko zailaren ondorioz gastu edo karga ekonomiko garrantzitsuak alegatzen badira, gastu edo karga horiek justifikatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dira.

c.5) Ordaintzera behartuta dagoenaren errenta-aitorpenaren kopia, eskaera egiten duen egunaren aurreko zergaldiari dagokiona, edo horren aurreko urteari dagokiona, aurreko ekitaldiko errenta-aitorpena aurkezteko epea amaitu gabe baldin badago. Aitorpen hori aurkezten ez bada, Zerga Agentziak emandako ziurtapena edo txostena aurkeztu beharko da, aitorpena ez aurkeztea justifikatzeko.

-pertsona juridikoak:

c.6) Azken ekitaldiko sozietateen gaineko zerga

c.7) Azken ekitaldiko egoera-balantzea eta emaitza-kontua

c.8) Ordezkaritza egiaztatzekeo agiria.

d) Eskatzen den gerorapena edo zatikapena egiteko epeak eta gainerako baldintzak.

e) Berme bat, kreditu-entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren kontratua aurkeztuta.

f) Banketxean helbideratzeko agindua, kontu-zenbakia eta kontuan kargua egin behar duen kreditu-erakundearen identifikazio-datuak adierazita.

g) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.

3.- Dirubilletako Zerbitzuak zergapekoaren identifikazioa eta zergaren zenbatekoa zuzenak direla egiaztatu eta gero, ulertu ahal izango da zatikatzea onartu zaiela aldian behingo transferentzia egiteko agindua egiaztatzen duen banku-agiria aurkezten dutenei, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.

4.- Geroratzea edo zatikatzea onartu ahal izango da, lehenago agindutako bahikuntzak gauzatzeari edo etorkizunean sor daitezkeen zergapekoaren aldeko kredituen bidez zorrak konpentsatzeari utzi gabe.

5.- Salbuespenez, goian aipatutakoez bestelako zenbatekoak eta epeak dituzten zorrak geroratzea onartu ahal izango da, zordunak aurkezten dituen agirietan oinarrituta.

6.- Ordainketaren gerorapena onartu ahal izateko, eskatzaileak ordainketarako borondatezko aldiaren barruan sortzen diren zor berriak ordaintzeko konpromisoa hartu behar du.

4. artikulua. Ez ordaintzearen ondorioak.

-Gerorapenetan, geroratzea borondatezko aldian eskatu baldin bada, betearazteko aldiari hasiera emango zaio, eta geroratutako zorra nahiz zorra horri dagokion betearazteko aldiko gainkargua eskatuko dira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Gerorapena betearazteko aldiaren barruan eskatu bada, hasitako premiamendu-prozedurarekin jarraituko da besterik gabe, eta dagoen bermea betearaziko da lehendabizi, hala badagokio.

-Zatikatzekak borondatezko aldiaren eskatu direnean, eta mugaeguna iristean bi epe ordaindu ez badira, ordaintzeko dauden zati guztiak epemugara iritsi direla iritziko da, eta, hala, betearazteko aldiari hasiera eman eta, bestelako izapiderik gabe, kitatzeko dagoen zorra ordaintzeko premiamenduzko probidentzia emango da.

Zatikapenak betearazteko aldiaren eskatu direnean, eta ordaintzeko epemuga iristen denean bi epe ordaindu gabe, berehala ekingo zaio premiamenduzko bideari, kitatzeko dagoen zor osoa ordaintzeko.

Ez ba beharrezkoa izango aurreko bi paragrafoetan aipatzen diren bi epeak ez ordaintzea zatikapenaren onspena ondorioz gabe uzteko, baldin eta epeetako bat betetzen ez bada eta Azkoitiko Udalaren Dirubilketako Bulegoak, zorra ordaintzeko zatikapen-espeditatea egin duen organoa den aldetik, errekerimendua igorri eta gero, ordainketa 10 eguneko epean egiten ez bada.

5. artikulua. Eskerak ez onartzea.

Eskera hauek ez dira onartuko, salbuespenezko egoeretan izan ezean:

- a) Lehenago ebatzi diren gerorapen edo zatikapenak berriz aztertzea, eskerak behar bezala oinarrituta ez badaude eta duten helburu bakarra zerga-betebeharrak betetzea atzeratzea bada.
- b) Lehenago uko egin zaien eskaeren errepikapenak direnak, baldin eta lehen uko egin zaien eskaerekin alderatuta funtsezko aldaketarik ez badute, eta, bereziki, eskaera errepikatze horren helburua zergabilketaren kudeaketaren garapena luzatzea, oztopatzea edo galaraztea bada.
- c) Onartutako gerorapenak edo zatikapenak behin eta berriz bete ez dituzten edo dagozkien bermeak eratu ez dituzten zergapekoek aurkeztutakoak.
- d) Konpentsazioa duten zorrak zatikatzeko edo geroratzeko eskerak.

Eskera ez onartzearen ondorioz, ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera ez da aurkeztutzat joko, ondorio guztietarako.

2.- KREDITU KOBRAEZINAK

6. artikulua. Kredituak kreditu kobraezintzat jotzeko proposamenak.

1.- Prozedura-legeen printzipioari zor zaion errespetua eta administrazio-ekonomia eta -eraginkortasuna bateratzeko xedez, kreditu kobraezintzat jotzeko proposamena egin baino lehen egiaztatu beharko diren eskakizunak eta baldintzak zehaztu dira.

2.- Aurkeztu beharreko agiri zurigarriak desberdinak izango dira, zorraren zenbatekoen eta ezaugarrien arabera, eta egoera hauek bereiziko dira:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2.1.- 60 eurotik beherako zenbateko zor metatuak direla-eta irekitako espedienteak:

2.1.1. Betearazteko espedienteetan jasota egon beharko da balioetan agertzen diren helbide guztietan egindako jakinarazpena, udaleko datu-basean jasota dagoen helbidean egindakoa, eta biztanleen erroldan jasota dagoen helbidean egindakoa.

2.1.2. Goiko atalean adierazitako helbideetan egin diren eta emaitza negatiboa izan duten jakinarazpenak direnean –bai zorduna ezezaguna delako, bai ez dagoelako–, jakinarazteko bi saio egin eta gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez argitaratu beharko dira.

2.1.3. Zordunaren IFZ izanda, fondoan bahikuntza egiaztatu beharko da, hainbat banku-erakundetan.

2.1.4. Zordunaren IFZrik ezean, egiaztatu beharko da udaleko datu-basean zorrak kitzera bideratutako kontsultak egin direla.

2.2.- 60 eta 300 euro bitarteko zor metatuak direla-eta irekitako espedienteak. Kreditu kobraezintzat jotzeko proposamena aurkeztuko da, eta goiko ataletan adierazitakoez gain, baldintza hauek ere bete beharko dira:

2.2.1. Zordunaren IFZ izanda, lansari, soldata, eta pentsioen bahikuntza egiaztatu behar izango da, emaitza negatiboaz.

2.3.- 300 eta 600 euro bitarteko zor metatuak direla-eta irekitako espedienteak. Kreditu kobraezintzat jotzeko proposamena aurkeztuko da, eta goiko ataletan adierazitakoez gain, baldintza hauek ere bete beharko dira:

2.3.1. Zorduna Jabetzaren Erregistroan inskribatutako inongo higiezinaren jabea ez dela egiaztatu beharko da.

2.3.2. Zordunak ibilgailuren baten jabea ez dela egiaztatu beharko da, edo, bestela, duen ibilgailua 12 urtetik gorakoa dela.

2.4. 300 eta 600 euro bitartekoak diren eta erakunde juridikoen izenean dauden zor metatuak direla-eta irekitako espedienteak. Kreditu kobraezintzat jotzeko proposamena aurkeztuko da, eta goiko ataletan adierazitakoez gain, baldintza hauek ere bete beharko dira:

2.4.1. Merkataritza Erregistroak emandako informazioaren bidez, egindako jarduketak egiaztatu beharko dira.

7. artikulua. Kobragaitzak berrikustea eta kreditu kobraezinak birgaitzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.- Dirubilketa Zerbitzuak behatuko du kobragaitzat jo diren zergapeko erantzuleak bat-batean kaudimendun bihurtzen diren.

2.- Hori gertatuz gero, eta agindurik ez badago, egokia izango da kobratu gabeko kredituak birgaitzea, betearazteko prozedura berriz irekiko da, eta baja emandako kredituen likidazio berria egingo da, egokiak diren betearazteko tituluak zergapekoa kobragaitzat jo zen unean zeuden kobrantza-egoera berean jaulkitzearren.

III.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran onartu zen eta GAOn iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.